

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**32/2020 Mozioa, ekainaren 26koa, ardogintza-sektoreari zuzenduriko suspertze ekonomiko eta sozialerako neurriak martxan jartzeari eta nekazaritza-ustategietako sasoikako langileen artean SARS-CoV-2 prebenitzeari buruz**

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko ekainaren 26an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

32/2020 Mozioa, ekainaren 26koa, ardogintza-sektoreari zuzenduriko suspertze ekonomiko eta sozialerako neurriak martxan jartzeari eta nekazaritza-ustategietako sasoikako langileen artean SARS-CoV-2 prebenitzeari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diete Arabako Errioxaren Posizionamendu Planean identifikatu ziren erronkak eta ekimenak garatzeko, eskualdeko eragile publiko eta pribatuekin gauzatutako prozesu parte-hartzailearen ondoren, eskualdeko ardogintza-ereduaren bikaintasunari eta jasangarritasunari esker maila globalean duen lidertza sustatzeko eta erreferentziako helburu enogastronomiko gisa dinamizatzeko.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ardogintzaren sektoreari zuzenduriko A Planeko suspertze ekonomiko eta sozialerako neurriak martxan jar ditzala, Eusko Jaurlaritzak iragarritako neurriekin koordinatuta, arreta berezia jarriz ardo arabarrak sustatu eta posizionatzera bideratutako neurrietan eta ardo horiek saltzeko bide berriak irekitzea xede duten neurrietan.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Eusko Jaurlaritzak gauzatu duen protokoloa, "segurtasun higieniko-sanitarioko protokoloa sasoikako langileak eta pertsona horiei zuzendutako ostatuak kontratatzen dituzten nekazaritza-ustategietarako" izeneko, ezagutarazteko, langileen artean SARS-CoV-2 hedatu ez dadin eta langileak kutsa ez daitezzen. Horrez gain, eskatzen diote UAGArekin lanean jarraitzeko, Sasoiko Langileen Programa luza dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 26a

*Presidente*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**